

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2013ko martxoaren 22a
333. zenbakia. 24. urtea



Herriko dendarien *Arkupea*

Arkupe elkartearen urteetako jarduerari errepassoa eman diote Marian Urangak eta Ainhoa Fernandezek, presidente ohiak eta presidenteak.

05

Orioko kontuak
Udal aurrekontuak

09

Kirol Elkarriketa
J.M. Lizaso eta J.M. Urkizu

19

Adarretatik helduta
Nere Manterola

25

Herritarra
Pedro Cuesta

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 - 20810 Orrio (Gipuzkoa)

Tf: 943 835 860 Web: www.2gurpil.com Email: bigurpil@hotmail.com

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK ■
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK ■
FATXADEN ERABERRITZEAK ■
IGOGAILUEN PROIEKTUAK ■
GREMIO KOORDINAKUNTZA ■
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... ■

ITURRIBIDE 8, 5.BULEGOA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

uranga
autozerbitzua

Aliprox

Euzko Gudari Palma 13-15
ORIO
943 83 38 75

ARKAITZ
Taberna

Pinxoak,
plater konbinatuak
eta ogilarteko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 Tel: 943 83 16 57

TANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldi-roko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 49 43
e-mail: harraspil@harraspil.net

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldúa
aseguru agentea

Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delaoruz.pa@allianz.es

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonet.com/argine
Tel. 943 13 48 89

7,5eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

elkaritortzia

ANTILLA
jatelekuak

Abeslari Kalea, 2 - Tel: 943 83 16 57

azkue
karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orrio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

Automóviles ZARAUTZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

Itxialu bermak
eta le bermak
saga

ZARAUTZ, Tel. 943 13 13 50

Dorronsoro Denda

1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

Tel 943 83 09 37

BARAKA
estilo berria

Deitartekoak
Plateroak
Plater konbinatuak
Etxeko janaria

943 13 13 12
Aitor

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Igo zaitetz hoize berrietara!

Galerria

943890416 - 677149934
galerria.orio@hotmail.com

Sorterriko koplak

1

Ohianeko pagoak blai
aideratuz hiru elai.
Ostadarraren harian dira
hirurak pausatu nahi

2

Larrosak dira gorriak
edo bestela xuriak.
Hagitzez dira ederragoak
neskatilaren irriak.

3

Maldan behera urratsa
betiko bidean latsa.
Hodei ilunak gaua belzten du
udazkena ez da bedatsa.

4

Usapalak ostantzean
huts bat badut bihotzean.
Zatoz maitea gure etxera
dostatzera arratsean.

5

Eder basoan haritza
haran aldean garitza.
Fruitu antzera ontzen da hemen
gizasemeen bititza.

6

Sagar gorriak dilindan
damea dago ganbaran
maite laztanez hartzeko eta
elkartzeko ohantzean.

7

Isiltasuna abailtzen da
luma galdu bat bezala
begiak uso, mingaina arana
zure bihotza ene aingura.

8

Hurrun gauhontzak uluka
zakur deslaiak zaunkata.
Mende oso bat iraganen dut
zure ondoan koblaka.

333

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur Etxea
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegi,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzquidun

Ale honetako**laguntzaileak**

Shanti Arrieta,
Eider Arruti,
Ursula Irigoyen,
Xabier Iribar,
eta Nere Manterola

Laguntzaileak

Eli Huegun
eta Iñaki Iturain

Diseinua

Karkara taldea

Banatzailak

Kattalin Bollain eta
Esti Uranga (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.000 ale

KARKARAK ez du bere gain
hartzen aldizkarian
adierazitako esanien edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.



ARGIA

PUBLIZITATE PREZIOAK**Iragarkia alero jarrita**

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko
Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Ezkutuko aurrekontuak

Orioko EAJko zinegotziok ez dugu parte hartu udalbatzak aurrekontuak onartzeko egin duen bozketan. Gehien bozkatua izan den alderdiari eta babes emanako oriotar guztiei errespetua guztiz galdu zaie eta 1.200 oriotarren ordezkariekin kontatu gabe eta ezkutuan egindako aurrekontuak inposatu nahi dizkigute.

Udalbatza aretoan gogoratu genion Bilduri EAJko zinegotziok, herriari emateko zer bait badugula pentsatzen dugulako dihardugula lanean. Bilduk alkatetzaz jabetu zenean haize berriak ekarriko zituela agindu zuela gogoratu diegu, baina hori ez da horrela izan.

Nahikoa da. Aurrekontuen diseinua- ren garapenean izan duten jarrerak hau- tetsien pazientzia agortu du. EAJ gober- nuan zegoenean hilabetetako lana izan- ten genuen talde guztiakin aurrekontua lantzeko eta akordioetara iristeko eta ahalegin horren ondorioz, aurrekontua onartu egiten zen. Horretaz gain, gutxie- nez hiru hazienda batzorde behar izaten ziren: lehenengoa aurrekontuaren zirri- borroa aurkezteko, bigarrena ekarpe- nak jaso eta eztabaidatzeko eta hiruga- rrena diktaminatzeko.

Bilduk hori guztia 13 egunetan egin nahi izan du eta batzorde bakar batetan. Otsailaren 7ko arratsaldean fotokopia bat utzi ziguten karpetan –8ra arte ezin izan genuen jaso– eta inongo azalpenik eman gabe, 20an diktaminatu egin nahi zuten. Tartean inongo azalpenik eman gabe, aurrekontuaren ildo nagusien nondik norakoak azaldu gabe, partida berrien deskribapena eta zergatia azal- du ere egin gabe.

EAJko ordezkariok hala eskatuta, otsailaren 20ko batzordea zalantzak ar- gitzeko erabili zen eta ekarpenak egin ondoren, diktamena martxoaren 5ean ematea adostu zen. 2013ko aurrekontua aztertu ondoren, oriotarren onurarako behar beharrezkoak diren ekintzak bu- rutzeko diru partidak falta zirela-eta, EAJk ekarpenak egin zituen. Besteak beste, Haurreskolan plaza gehiago lor- tzeke obrarako diru partida bat, herriko

txikientzat ludoteka bat eta etxebizitza arloan izaten ari garen arazoari aurre egiteko diru partida bat. Horren aurre- an, ordea, partaidetzaren eta demokra- ziaren itxurak egin dituzte eta ekarpe- nak egiten utzi ondoren, eztabaidarako aukera ere ez dute eman.

Eta horren adibide garbiena hauxe da: diktaminatu behar den aurrekontu defi- nitiboa batzordea egin baino lau ordu le- henago aurkeztu ziguten. Eta hori onar- tezina da!

Orioko Bilduk gardentasuna eta par- taidetza modu selektiboan erabiltzen ditu. Udaleko balkoian bandera espaino- la jartzearen erabakia EAJrekin ere kon- partitu nahi izan dute. Zenbatetan en- tzun behar izan dugu *PNV Español!* Orain zuentzat inposaketa den hori zer izan da ba EAJrentzat? Beti frentean izan zaituztegu eta orain zuen aldame- nean nahi gaituzue? Aurreko legealdian ere bandera jartzeko errekerimendua bazegoen eta EAJk ez zuen onartu. Guk berdin jarraitzen dugu.

Koherentziaz jokutzen dugu beti, ar- duratsu eta errespetuz. Gutun honek hori guztia salatu nahi du. Errespetu fal- taz eta arduragabekeriak egiten diren ekintzetan ez dugu parte hartuko. Gure- gan konfiantza jarri zuten 1.200 pertso- nei errespetua eta ardura zor diegulako.

■ Orioko EAJ

Laguntzaileei gutuna

Adiskide hori,

Ziurrenik eskutitz hau iritsi da zure eskuetara, baina postetxetik batzuk bueltan etorri zaizkigunez, aldizkaria- ren bidez ere helarazi nahi dizugu zuri zuzendutako gure azken idatzia.

Horrez gainera, etxean gutunik jaso ez baduzu, zure datuak eguneratzeko pre- mia dugulako da eta eskertuko genuke horiek eguneratzeko gurekin harrema- netan jartzea.

KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEA- ren 338 laguntzaileetako bat zara, gure proiektuan sinesten duzulako eta babe- sa eskaintzeko prest zaudelako. Biho- tzez eskertzen dugu zu eta gainerako la-

guntzaileek ematen diguzuen laguntza eta aterpea. Zuek gabe ezin da irudikatu KARKARARIK.

Boluntariotza dakar berekin lagun- tzaile izateak. Izan ere, urtez urte, garai zailak ala hobeak izan, KARKARAK zehaz- tutako kuota ordaintzeko prest agertu zarete asko eta asko. Dena den, eta ez inolaz ere, garrantzia gutxiago duelako, norberaren aukeren arabera ere jaso izan du laguntza KARKARAK. Hogeita urte askoan 5.000 pezeta eta ondoren 30 eu- roko kuota finkoari eutsi ondoren, duela zazpi-zortzi urte igotzea erabaki ge- nuen, proiektu berriei –web gunea mar- txan jartzeko, esate baterako– heltzeko.

Tamalez baina, egoera aldatu egin da eta KARKARAREKIN jarraitzeko zuen la- guntza ekonomikoa ezinbestekoa dugu. Ahalegin txiki bat eskatzen dizuegu: KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEAREN proiektuak aurrera egin dezan, urtean 36 euroko diru-laguntza ematea; alegia, orain arte baino euro bat gehiago. Dena den, hala nahi duenarentzat, hortik go- rako zenbatekoak ere ongi etorriak izan- go dira.

Esfortzu horren ordainetan, saritu egin nahi zaituztegu, gure esker ona adierazteko. Horrenbestez, Arkupere- kin, Orioko merkatarien elkartearekin, egindako hitzarmenari esker, hilean behin Arkupeko dendaren batean gasta- tzeko 60 euroko bono bat zozketatuko dugu KARKARAREN laguntzaileen artean.

Besterik gabe, agur eta ondo bizi.

■ KARKARA TALDEA KULTUR ELKARTEA

Karkara lagundu nahi dut: Karkara aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 36 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:..... Posta kodea:..... Tel.:.....

Kontu korronteko zenbakia:



EAJko zinegotzien aulkiak hutsik geratu ziren martxoaren 7ko udalbatzarrean. KARKARA

Ia 8 milioi euroko aurrekontua onartu du Orioko Udalak 2013rako

Aurreko urteetakoarekin konparatuz behera egin du Udal aurrekontuak. Ohiko gastuetan egin dituzte murrizketa nabarmenenak Bilduk eta Orainek osatzen duten Udal Gobernuak

Martxoaren 7an, ostegunarekin, ezohiko udalbatzarra egin zuen Orioko Udalak. Mahai gainean jarri zituzten gaien artean, garrantzitsuena, 2013ko Udal aurrekontuena zen.

Bi egun lehenago, martxoaren 5ean, Ogasun Batzorde informatzailean oniritzia jasota eraman zituzten plenora aurrekontuak. Batzorde hartan, EAJren ordezkariak bilera bukatu aurretik aulkitik altxa eta bertan jarraitzeari uko egin zion, behin aurrekontuei ezezko bozka eman eta gero, *EAJren ekarpenak kontuan hartu ez dituztela ikusita* Jon Redondoren hitzetan. EAJko ordezkariak adierazpen bat irakurri zuten martxoaren 7ko ezohiko bilkuran, eta antzeko argudioak erabilita, saioan parte hartzeari uko egin zioten. Hutsik utzi zituzten beren aulkiak. Bilduko ordezkarien arabera, *EAJri egin zituen ekarpenen gainean eztabaidatzeko aukera eman zitzaien, baina haiek ez zuten elkarriketa erabili nahi izan.*

Aurrekontuak

Orioko Udalaren aurrekontua jaitsi egin da nabarmen 2011tik hona: duela bi urte 10,4 milioi eurokoa izan ziren, iaz 9,2koa eta 2013an 7,8 milioi inguruko aurrekontua izango du Orioko Udalak.

Murrizketak egiterako garaian, ohiko gastuei erreparau diote Bildu eta Oraineko ordezkariak. Horretarako, protokoloan, telefonian, igogailuen mantenu

gastuan, posta zerbitzuan, azpiegituren mantenu eta garbiketan... gastatzen dena neurtu eta doitu egin du Orioko Udalak. Gobernuaren arabera, *gastu arrunta eta sarrera arrunta orekatzeko arazoak ditu gaur egun Oriok, azpiegiturak mantentzea garestia delako*. Hori dela eta, sarrerak igotzeko hartu duten neurrien artean exekutiba abiaraztea izan da: Orioko Udalak jartzen dituen eta ordaintzen ez diren isunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren ogasunak kobratuko ditu hemendik aurrera. Baita 2008tik hona ordaindu gabe daudenak ere.

Hezkuntzari eta ongizateari eman die lehentasuna aurrekontuetan, eta, herriko taldeei, diru-laguntzak ahalik eta gutxien jaisten saiatu dira. Inbertsioetan jarri dute indar gehien Orioko Udaleko arduradunek: Kanpinoko bungalowetan eta lanetan -535.000 euro eta 115.000 euro hurrenez hurren- eta bide publikoak berritzen -92.5000 euro. Gainerakoa Etxeluzeren erosketan -76.975 euro- eta kiroldegia txukuntzen -72.839 euro- inbertituko dute. Horrez gainera, Plan Orokor berria egin nahi dute non 2020-2025eko Orioko irudikatuko duten Horretarako, 50.000 euro erabiliko dira.

ZENBAKIA

5

Ekarpen. EAJk bost ekarpen egin zituela eta ez zituztela kontuan hartu adierazi zuen. Udal gobernuak, berriz, ekarpen horietatik 3 aurrekontuan sartu zituztela eta bat aztertzen ari direla. EAJk ez du horrela uste, eta, horregatik, Udal aurrekontuak eztabaidatzeko plenoan parte hartzeari uko egin zion.



Kukutza kasuan auzipetu izan direnen alde manifestazio asko egin dira. Irudian Bilboko bat. ARALAR.NET

Apirilean hasiko dira Kukutza auzian atxilotu zituztenen epaiketak

2011ko irailean eraitsi zuten Kukutza III Bilboko Errekalde auzoko gazetxea. Eraikina behera bota zuten egunean izandako istiluetan atxilotu asko izan zen, tartean oriotar bat. Apirilean epaituko dute

Kukutza eraitsi zuten egunean gazetxetik atera eta atxilotutako ia lagun guztien aurka fiskaltzak hemezortzina eta hogeita hamarna hilabete arteko espetxe zigorra eskatu du desordena publikoa egotzita. Horien artean oriotar bat, 21 urteko A.M., dago inputatuta.

Gazte oriotarra 2011ko irailaren 23an atxilotu zuten, eta, gaua Erandioko komisarian eman ondoren, epaile aurretik pasa eta aske geratu zen, karguekin. Desordena publikoa, autoritateari erresistentzia eta autoritatearen aurkako atentatua leporatu zizkioten. Auzipetuek jakinarazi dutenez, apirilean aurreikusten dira epaiketak, nahiz eta prozesua luzatu daitekeen.

Orain arte egin diren 2 epaiketetan, *Ertzaintzak emandako bertsioa benetan gertatutakoarekin bat ez zetorrela argi geratu dela* adierazi dute gazetxeko kide zirenek. Iñaki Carro akusatuen abokatuak, atxilotetak *arbitrarioak eta justifikaziorik gabeak* izan zirela salatu du.

Hori dela eta, *Nirehan egon nintzen, elkartasuna ez da delitua* kanpaina jarri du martxan Kukutzako elkartasun taldeak, Kukutza III gazetxearen huste eta eraisteak iraun zuten egunetan Ertzaintzak atxilotutako 80 pertsona eta zauritutako 100dik gora lagunei elkartasuna eta babesa helarazteko asmoz.

Jaialdia

Kukutzako elkartasun taldeak jaialdiak antolatuko ditu datozen hilabeteetan isunak ordaintzeko dirua eskuratu ahal izateko. Horrenbestez, Euskal Herriko eragile, elkarte, gazetxe eta norbanakoei harremanetan jartzeko asmoa adierazi dute laguntza eta parte hartzea eskatzeko.

Maiatzean, esaterako, Zarauzko Putzuzulo gazetxea izango da jaialdi horietako baten lekuko. Udaren bueltan, berri, Orioko Etxeluze gazetxeak jasoko du antolaketa ardura ematen dion lekukoa.

LABUR

Kultura

Piano jaialdia

Amaia Izagirre eta Jon Loidi, Danbolin Musika Eskolako ikasleek, XVIII. Donostiako nazioarteko piano lehiaketan hartu zuten parte martxoaren 9an. Izagirrrek 11 urte ditu eta oinarritzko 1. mailan bi pieza jo zituen. Berrogei gazteren artean, 11k lortu zuten lehenengo aipamena, tartean Izagirrrek. Jon Loidik 13 urte ditu eta bi pieza jo zituen honek ere Erdiko 1. mailan. 26 gazteren artean, Loidik lortu zuen lehenengo aipamena. Gainera, epaimahaikoek, martxoaren 10ean izan zen Victoria Eugeniako bukaerako kontzertuan parte hartzeko aukera eskaini zioten, duen gaitasuna erakusteko, beste bost partaiderekin batera.

Esoain irabazle Ordizian

Ahoz-ahoz 2013 izeneko jaialdiaren barruan, ipuin kontalarien lehiaketa antolatu zuen Intujai taldeak Ordiziako Udalen laguntzarekin pasa den otsailaren 23rako. Sei ipuin kontalari izan ziren bertan, tartean Ibai Esoain oriotarra. Irabazi egin zuen eta 300 euro eta kalabaza itxurako garaikurra ekarri zituen Oriora.

Udaleko kontuak

Udako lanpostuen eskaintza

Udalak deialdia egin du udan lanerako hartuko dituen pertsonak aukeratzeko. Orion erroldatua eta langabetua izan behar da parte hartzeko. Honako lanpostuak dira eskainitakoak: Kanpinerako lau zaindari, Antillako hondartzako kabinen bi garbitzaile, kanpineko komunen lau garbitzaile, bi udaltzain laguntzaile eta txu-txu trenaren bi gidari. Aldizkako langile finkoek gaur egun betetzen duten lanpostuetakoren bat hutsik gertzen bada, langile horrek uko egin diolako, lanpostu hori aurrez aipatutakoei gehituko diete. Eskabideak udal bulegoetan aurkeztu behar dira, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era, apirilaren 5a baino lehen, han emango duten instantzia betez. Lanpostu horiek betetzeko egin beharreko probak apirilaren 20an izango dira Orioko Ikastolaren eraikin berriko areto nagusian, 09:00etan hasita. Horrez gainera, turismo bulegoan eta kanpineko harreran lanean jarduteko pertsona bat hartuko du Orioko Udalak udan. Eskaerak apirilaren 5a baino lehen aurkeztu beharko dituzte udaletxean. Curriculumak udal bulegoetan utzi behar dira, titulazioak behar bezala egiaztatuz, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.



Umeak frankismoan hezteko Orion zegoen udako kanpamendu bat. ARTXIBOA

Orioko memoria historikoa jasotzeko ikerketa jarri dute abian

Lau Haizetara Gogoan koordinadorako ikerlariak arituko dira Gerra Zibilean Orion errepresioa jasandakoen istorioak jasotzen eta horien inguruko dokumentu pertsonalak egingo dituzte

Iraganarekiko lotura ez galtzeko ahalegina da oroimen historikoa; garai bateko gertaerak biltzen dituen, iragana baloratuz eta errespetatuz. Gerra Zibilaren oroimen historikoa, garrantzia izan arren, ezer gutxi dakigu Orion errepresioa jasan zutenei buruz; dokumentazio gutxi dagoelako eta orduan bizitakoak askok kontaktu nahiez dituelako.

Hori dela-eta Lau Haizetara Gogoan koordinadorak Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz proiektu bat jarri du martxan. Memoria historikoa berreskuratzea eta oriotarrek bizi izandako injustizia eta errepresioaren berri jakin eta dagokionari ordainaraztea dira helburuak.

Bi asmo abian

Proiektuaren aurkezpenean Beñat Solaberrieta alkateak jakinarazi zuen Orion oroimen historikoa berreskuratzeke bi asmo daudela martxan: Lau Haizetara taldearena eta *Oroimenaren ubera*, KARKARAN Gerra Zibilari buruz kontatutako-

etatik abiatuta Iñaki Iturain osatzen ari dena. *Garrantzitsua iruditzen zaigu gaia, baina mimo handiz landu beharrekoa da. Urte asko pasa dira, denborak egoera samurtu du eta pertzepzioa aldatu da. Baina oraindik jendea irakurten zaio Gerra Zibilaz hitz egitea, dio alkateak.*

Gerra Zibileko biktimen zerrenda osatzea da asmoa, familien borondatea baieztatzea eta beren nahia zehaztea, galdetegi edo protokoloak nazioarteko legeak aintzat hartuta betetzea, Udal artxiboa arakatzeko eta bildutako dokumentuak eta testigantzak arakatzeko eta Orioko Udalaren kustumien azterketa.

Bi ikerlari

Lau Haizetara Gogoan taldeko Gotzon Garmendiak adierazi zuen orain arte oroimen historikoa berreskuratzearen harira omenaldiak, oroigarriak... egin izan direla, baina hori ez dela nahikoa. Beraz, nazioarteko legeari jarraituko diote eta ikerlariekin errepresaliatu bakoitzaren dokumentuak jasoko dituzte

kontaketa osatzeko. Kaltetu, senide edo herritarrengandik jasotako dokumentu publikoak, pribatuak, adituen txostenak eta zuzeneko kontaketa.

Elkarteko Isabel Gonzalez eta Aiala Oronoz arduratuko dira datozen hilabeteotan ahozko testigantzak jasotzeaz. Lanean hasiak dira eta Gonzalezek herriko hainbat gertaera kontatu zituen: aurkariei pasabidea galarazteko zubia bota zuela eta *Batallon de trabajadores* delako batek konpondu zuela, frankismoan hezteko Orion zegoen udako kanpamendua, kalei euskal izenak kendu egin zitzaizkiela...

Oronozek, berriz, errepresioak modu askotakoak izan zirela adierazi zuen eta horietako batzuk jakinarazi: hildako eta desagertuak, Getariako hilerrian edo Xuai gainean fusilatuak, frontean hilak, torturatu eta erasotuak, presoak, erbestatuak, frankisten tropetan sartzera behartuak, Udal langile eta irakasle baztertuak...

Herrian, garai hartako testigantzak jasotzea da elkartearen asmoa; bai errepresioa jasan zutenena, baita bitartekariena ere. Horretarako, uste dute egokia litzatekeela oriotarrek zubi lana egitea eta laguntzeko lan-talde bat egotea. Herritarren batek ikerlariekin harremanetan jarri nahi izanez gero udaletxeko harritararajo dezake.

Aitziber Ibarbia eta Hassan Ait Chaou azkarrenak Aiako Mendi Lasterketan

Nerea Amilibia aiarra bigarren izan zen emakumeetan eta Mikel Iruretagoiena izan zen gizonezkoetan aiarrik azkarrena, helmugara hirugarren iritsita. Guztira, Aiako eta Orioko 32 korrikalari izan ziren

Martxoaren 10ean jokatu zen Aiako 2. mendi lasterketa. Aurreko egunetan egindako elurteek kezka ugari sortu zuten parte hartzaileen artean probaren bezperan, baina sekulako eguraldia izan zuten lasterketa egunean.

Korrikalariak jendearen animorik ez zuten falta izan ibilbideko 10 kilometroetan. Helmugara guztira 167 lagun iritsi ziren eta horietatik azkarrenak Hassan

Ait Chaou billabonatarra eta Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan ziren. Ait Chaouk gizonezkoen proba irabazi zuen 46 minutu eta 14 segundoko denborarekin. Atzetik 2 minutu eta 25 segundora, Ugaitz Artola herrikidea izan zen, eta hirugarren 3 minutu eta 4 segundora Mikel Iruretagoiena aiarra.

Emakumerik azkarrena, berriz, Aitziber Ibarbia izan zen 56 minutu eta 50 se-

gundoan helmugaratuta. Bigarren Nerea Amilibia aiarra iritsi zen 2 minutu eta segundu batera, eta hirugarren, Uxo Irigoien getariarra 3 minutu eta 8 segundora.

Orioko proba

Martxoaren 24an jokatu da Orioko 3. mendi lasterketa. KARKARA inprentara bidali genuenean 350 korrikalarik zuten izena emanda, iaz baino 40k gehiagok. 20 kilometroko ibilbide gogorrean jardun beharko dute korrika. Probako denborarik onena, Ionut Zinkak jarri zuen iaz: ordubete, 28 minutu eta 55 segundo.



Alkorta anaiak -eskuinetik hasi eta lehena eta hirugarrena- 15. eta 22. izan ziren hurrenez hurren. KARKARA

LABUR

Dardoak

2014an Las Vegasera

Martxoaren 16an eta 17an jokatu da Espainiako Txapelketan hartu zuen parte Unar elkarteko Rugby Tragoxka taldeak. Bakarka, taldeko J. Merino irabazle izan zen amateur mailan eta J. Unanue 17. master mailan. Taldeka, berriz, amateur mailako 501eko modalitatean irabazi zuten beste 123 talderen aurka. Gauzak horrela, emaitza horiei esker, Las Vegasko Munduko Txapelketan izango dira 2014an.

Automobilismoa

Eizmendi eta Olasagasti garaile

Martxoaren 16an jokatu zen Hondarribiko rally-sprintean beren lehen garaipena eskuratu zuten Gorka Eizmendi eta Haritz Olasagasti aiarrek. Alokairuan hartu behar izan zuten proba horretarako autoa. Berena muntatu gabe daukate 2013ko Abarth koparako prestatzen. Tarsizioekin eta Peñarekin estu-estu ibili ziren lasterketa irabazteko. Lehenengo txandan denbora bera egin zuten eta bigarrenean, istripu baten ondorioz, neutralizatu egin zuten lasterketa. Hirugarrenean, ordea, aiarrek 5 segundoz irabazi zuten proba.

Saskibaloia

Sara Iparragirre U-15arekin

Urte hasierako autonomien Espainiako txapelketan maila ona erakutsi eta gero, Espainiako 15 urtez azpikoaren selekzioarekin arituko da Sara Iparragirre oriotarra. Aste santuan, jokatu du txapelketa Zaragozan. Denboraldi ona ari da egiten Iparragirren taldea. Txapelketaren bigarren faseko bigarren itzulua hasiko dute. Momentuz, bi partida baino ez dituzte galdu eta ligako hirugarrenak dira. Datorrena martxoaren 24an jokatu dute, igandearekin, 18:00etan, Zarauzko Antoniano kiroldegian Iraurgiren aurka.

“Arantzazurako bidea norbere burua proban jartzeko egiten du askok”

Joxe Mari Lizaso eta Joxe Manuel Urkizu

Mendizaleak

Oriotik 04:00etan abiatu, eta, 15 ordu mendiz mendi oinez egin ondoren, Arantzazura arteko bidea egiten du 20 inguru laguneko taldeak Ostegun Santu egunean. Aurtengorako ere egin dute deialdia eta joan aurretik ibilaldiaren berri eman dute bi lagunek.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Mendian ibiltzea gogoko dute Joxe Mari Lizasok eta Joxe Manuel Urkizuk. Badira urte batzuk Oriotik Arantzazurako ibilaldia egiten hasi zirela. Biak hasi, baina hainbeste ordu elkarrekin, bide ezagunetan eta hizketarako gaiak agortuta, taldea sortu zuten. Orain, taldekide berriek toki ezezagunetan gozatzen dutela ikusita, are gusturago joaten dira.

Nolako ibilbidea da?

Joxe Manuel: Ibilbide zaharretik joaten gara. Gabiriatik salbu herriguneetatik ez da pasatzen, guztia mendi bideetatik. Oriotik Zelatunera igo behar da eta gero badira gorabeherak. Bidaniatik Mandubira joan, salda hartu, mendiz mendi Gabiriara eta han eserita bazkaldu. Azkenean, Brinkolatik Biozkorniara, ia 1.200

metrorra igo ondoren. Geroko aldapa behar gogorra da, baina astunagoa da aurrez egindako bide guztiaren pisua. Abilenek igo eta itxarongo dute; besteok gure pausoa joango gara. Guztira 14-15 ordu dira.

Zenbat lagun joaten zarete?

J.Manuel: 20 inguru lagun. Aurreko urteko batzuk kale egiten dute, baina berriak ere etortzen dira. Herriko mendizaleak etortzea eta gerora ohitura mantentzea da gure ideia. Talde handiegia ez da oso ona, baina 20koa polita da.

J.Mari: Orain arte sekulako suertea izan eta barre ugari egin dugu elkarrekin.

Kirol erronka ala promesaren baten aitzakian egindako ibilaldia da zuentzat?

J.Mari: Norbere burua proban jartzeko egiten du askok. Mendian korrika ibiltzen direnek ere egin izan dute ibilaldia

gurekin.

J.Manuel: Gure asmoa ez da marka gainditzea. Eguraldi ona eginez gero, bazter batera eta bestera begira denbora joaten da, baina hori ez da denbora galtzea.

Aurrez prestatu behar al da?

J.Manuel: Aste bukaeraro joaten gara mendira eta astean Kukuarritik bi-hiru buelta ematen ditut. Komeni da pare bat hilabete lehenago ohi baino gehixeago ibiltzen hastea.

J.Mari: 15 ordu ez da broma, 58 kilometro dira eta ez *abenidan*, baina gimnasioan ez gara prestatzen. Zailtasun handiena kilometro kopurua da. Konturatzerako bazkal ordua iristen da eta ondoren lau ordu inguru falta izaten dira. Gai nontzean ez dago aparteko arriskurik.

“15 ordu ez da broma, 58 kilometro dira eta ez *abenidan*, baina gimnasioan ez gara prestatzen. Zailtasun handiena kilometro kopurua da.”

“Inoiz joan ez denarentzat bere bizitzan sekula ahaztuko ez duen esperientzia izango da, eguraldi ona izanez gero are gehiago”

Zer eraman behar da?


J.Mari: Eguraldi ona egingo duela ziurtatuz gero, nik gerriko-poltsarekin nahikoa dut. Ura bada bidean, beraz, haiek betetzeko botilatxo pare bat eta jateko barrita edo fruitu lehor batzuk.

J.Manuel: Nik motxila eramaten dut. Ilunetan atera eta berotuz gero arropa han sartzeko. Goizeko lauretan atera eta hamarrak izaten dira Mandubira iristerako, beraz, tarte horretarako dena aldean eraman behar.

J.Mari: Aurrez bilera egiten dugu eta han azaltzen dugu dena. Hara azaldu eta batek baino gehiagok pentsa dezake: ni hauekin nora noa? Baina argi izan behar da denok antzeko erritmoan joango gara taldean, batzuetan aurreratu arren berriz elkartuz, baita proba gogorretan ibiltzen direnak ere.

Inoiz joan ez denari zer esango zenioke?

J.Manuel: Bizitzan sekula ahaztuko ez duen esperientzia izango dela, eguraldi ona izanez gero are gehiago. Inoiz ikusi gabeko tokietatik pasatuko da eta poza ere sentituko du, Gipuzkoa alderik alde zeharkatzen baita.



KARKARA



KARKARA

“Marka batek zerbait komunikatzen du beti, ez da itxura soila”

Belen Ibarrola

Diseinatzailea

13 urte pasa dira Belen Ibarrola KARKARAN elkarriketatu genuenetik, EITBko txoria diseinatu zuela-eta. Donostiatik Armendigaineko merkatalgunera etorrira, *motion graphic*-arekin jarraitzeaz gain, proiektu berriekin dabil lanean, sormenari atea irekita.

L.BERASALUZE

Ateak ireki nahiz itxi egin dizkio EITBko txoriak Ibarrolaren Euskalcom enpresari. Hango eta hemengo lantegi zein talde-eta irudiak sortzeaz gain, arropa-diseinuaren munduan sartu da oraintsu.

Zein irudi esanguratsu diseinatu dituzu ordutik hona?

Haurreskolak, Donostiako *Aquarium*, Osakidetza eta *Altxerri* –urteurren-koa– markak gureak dira esate baterako.

Irudiak ez dira egun batetik bestera

sortzen. Gaiari eta testuinguruari buruz jantzi behar izaten dugu, sortuko dugun irudi hori balioz betetakoa izan dadin; aurreikusitakoa transmititu eta nortasun propioa izan ditzan. Ikerketa handia eskatzen du horrek guztiak. Marka guztiek komunikatu egiten dute; ez da itxura soila. Amorrua ematen dit marka bat itsusia dela entzuteak.

Adibide bat jartzearen, hiru berezitasun ditu Altxerriko kobak: bisontearen nagusitasuna, espezieen dibertsitatea eta margotu aurretik harria karrakatu

egiten zutela. Azken ezaugarri horren indarra ikusita sortu genuen irudia.

Behin irudia eginda, aplikazio guztiak egiteaz ere arduratzen gara; eta asko dira, tartean, informazio liburuak.

“Asko baloratzen dut natura eta mendiz eta itsasoz inguratuta egoteak bete egiten nau. Oso eroso eta lasai nago Armendigainen”

Zuek diseinatutako arropa saltzen ere hasi zarete.

Bai. Bi marka propio ditugu, *on-line* bidez saltzen ditugunak: probokazio bat den *I'm perfect*, harrera ona izaten ari dena, gazteen artean batez ere. Perfekzioaren erlatibotasun hausnarketaren ondoren sortutako marka da. Perfekzioak inperfekzioarekin duen lotura aldarrikatu nahi izan dugu.

Tikili takulu da bigarrena. Aitonak jolasarako erabiltzen zuen tresna zen tiki-likak. Gurpilak puzteko haizegailuen eran, putz egitekoa atzetik aurrera ekarri eta muturrean zegoen kortxoa indarrez ateratzen zen. Bere oroimenez sortutakoa da.

Aiara etorri zineten duela urtebete.

Zerk erakarri zintuzten?

Aiara izanda etxerako bidea hartzea izan da nire helburua betidanik. Bezeroei nire asmoen berri eman nien aurrena eta batzuei nolabaiteko kezka sortu zitzaion, Aia milaka kilometrora balego bezala! Baina bezero leialak dira eta harremanari eutsi egin diogu.

Gustura nago momentuz. Asko baloratzen dut natura, eta mendiz eta itsasoz inguratuta egoteak bete egiten nau. Oso eroso eta lasai nago Aian.

Nola eragin dizue digitalizazioak?

Ez dut uste papera desagertu egingo denik, baina asko jaitsi da. Lana egiteko era asko ari da aldatzen; interaktiboa izan behar du denak.

Zer erronka duzue aurrera begira?

Komunikazio arduraduna Düsseldorf –Alemanian– bizi da eta pixkanaka Euskalcom enpresa han ingurura zabaldu nahi dugu. Dena den, Euskal Herrikoak ditugu bezero gehienak eta horiekin badugu nahikoa lan. Azken batean, proiektu handiak bezain gogokoak ditut txikiak –ezkontza bateko gonbitak diseinatzea, adibidez– eta krisiaren eragina nabaritzen bada ere, bat dela, bestea dela, beti dago zerbait egiteko.

Hortik aurrera, egunean egunekoari erreparatu nahi diogu, aurrera begira gehiegi jarri gabe.



Kopa hiru eurotan erosita nahi beste txakolin probatu ahal izango da Aian. KARKARA

Txakolin-dastatzea eta haragi pintxoak izango dira apirilaren 7an

Goizean goiz hasiko dira Eusko Labeleko txahala burruntzian erretzen, eta, meza ostean, haragi pintxoekin batera, Getariako txakolina dastatzeko aukera izango da

Getariako Txakolina gero eta ezagunagoa da txoko askotan. Marka zabaltzeaz gain, jendeari edaria probatzen emateko jaiak antolatu ohi ditu Getariako Txakolina Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak. Hurrengoa Aian izango da, Udalaren laguntzaz prestatua, apirilaren 7an, igandearekin.

Txakolin egunean *Getariako Txakolina* jatorri izendapena duten 27 upategitako txakolina dastatzeko aukera izango da Aian: Getariakoak, Zarautzkoak, Olaberriakoa, Debakoa, Hondarririkoa, Arrasatekoa, Mutrikukoa, Oñatikoa eta Aiakoak -K5 Argiñano eta Zudugarai-.

Txakolin berria

Neguan, mahastia atsedendian dagoe-la, inausketa egiten da mahatsondoak emankor uzteko eta udaberrian ernatuko dira. Beraz, mahatsondoak ernamuntzeko eta txakolina botilaratzeko garaia da martxotik apirilera bitartekoa. Aiako jai txakolin berria dastatzeko baliatuko dute.

Edaria, jatekoari laguntzeko izan ohi da gehienetan eta Aia herri ganaduzalea izanik, goizeko lehen orduetatik burruntzian erreko dute Eusko Labeldun bi txahal txiki. Ondoren, 1.600 inguru haragi pintxo salduko dituzte.

Kopa hiru euro

Aiara jan-edanera gerturatzen direnek hiru eurotan kopa erosi eta nahi beste txakolin probatzeko aukera izango dute; haragi pintxoak, berriz, euro batean salduko dituzte.

Meza ostean hasiko da txakolinaren inguruko jai eta bazkal ordura arte egongo dira txakolina zaleak herriko plazan. Dena, ordea, eguraldiaren arabera izango da; txarra egingo balu, iaz bezala, frontoian eta probalekuan izango litzateke eta.

Txakolinaz eta haragiaz gain, beste jateko batek ere izango du tokia; gaztak. Izan ere, Aia inguruko auzoetan dauden gaztagileek salmenta postuak jarriko dituzte.

LABUR

Ingurumena

Boluntarioak Landare Azokarako Iturrarango Lorategi Botanikoan Landare Berezien Azoka izango da apirilaren 27an eta 28an. Mintegizale kopurua handitzen doa urtez urte eta bisitariak ere asko izaten dira. Antolatzaileek laguntza behar izaten dute asteburu horretarako eta boluntario bila ari dira. Beraz, azokan lan egiteko prest daudenean, apirilaren 15era arteko epea izango dute izena emateko telefono zenbaki honetara deituta: 943 83 53 89.

Herri kirolak

Joseba Ostolaza Xiete harriarekin Harri-jasotze marka gainditzen saiatuko da Joseba Ostolaza, martxoaren 23an, 18:30ean, Aizarnazabalgo frontoian. Aizarnazabalgo *Xiete* harri kubiko ezagunarekin -190 kilo- arituko da, kubiko gehienek baino neurri handiagokoa. Historian gutxi jaso du harri hori; federazioko datuen arabera, Urtainek, Goenatxo II.ak eta Perurenak. Bost minutuko ahalegina egingo du Ostolazak zerrenda pribilegiatuan sartu nahian. Jaialdi berean arituko dira Idoia Etxeberria, oriotarra eta Jokin Eizmendi eta Jesus M. Iruretagoiena ere. Sarrera 10 euro da.

Aste santua dela-eta

Urtero bezala iritsi zaigu Aste Santua gure herrietara. Egun horien zain jende asko egoten da herritik kanpora joateko: familia-koekin egoteko, leku berriak ezagutzeko, lasaitasun bila aisialdiaz gozatuz... Baina, baita ere, badago norberaren sinesmenak eta fedea bultzaturiko ohi-turak jarraitzerik, nola ez.

Ekitaldi ugari izaten dira esanahi erlijiosoari lotutakoak Euskal Herrian. Ezagunenak Azkoitian, Hondarribian, Seguran... eginikoak, zazpi egunez egiten diren prozesioak, otoitzak eta fede ospakizunak. Erramu-igandean hasita, ostiraleko gurutze-bidea, larunbateko ura eta suaren bedeinkapenak jarraiturik eta pazko-igandeko egunak dira ospaki-

zun jarduera garrantzitsuenak.

Sukaldaritza ere elkarturik dago ospakizun horiekin. Garai batean, ostirale-tan haragia jatea debekatu zuen elizak.

Bijilia egitera behartuta zeuden beren sinesmen erlijiosoengatik. Hori dela eta, familia mahai ingurura bilduta, solasaldiak aprobetxatuz, arrainak eta gozokiak beharrezko osagaiak bihurtu ziren gure sukaldeetan

Horren ondorioz, bijilia egitera behartuta zeuden beren sinesmen erlijiosoengatik. Hori dela eta, familia mahai ingurura bilduta, solasaldiak aprobetxatuz, arrainak eta gozokiak beharrezko osagaiak bihurtu ziren gure sukaldeetan. Eta horiekin batera badira hainbat jaki gozo garai horietan tradizioari uztarturik daudenak eta pixkanaka galtzen joan direnak, gaur egungo bizitzaren ondorio direla. Hala nola, bijiliako potajea –garbantzu eta bakailaorekin eginikoak–, bakailao buñueloak, baratxuri zopa, karakolak, ogi-torradak, esne friji-tua, pazko opila...

Hori bai, herri bakoitzak eta bertako biztanleek bere ohiturei eta tradizioei eusten dio, sinesmenaren arabera, jakina.



Txokoak eta jendea
Mendi lasterketako
laguntzaileak

Mendi lasterketa izan da herrian. Jende asko, giro ona eta partaideak gustura antolakuntzarekin. Gauzak ondo ateratzeko lana eta goizetik jendea mugitzea ezinbestekoa da. Ez daude denak, baina bai horietako batzuk, helduak eta gazteak, denen borondatez gauzak ahal den ondoen egiteko. Eskerrik asko zuen lanarengatik.



ARRANTZALE GAZTEAK BATELEN TXAPELKETETAN

Batelen estropada garaia izaten da negutik udaberrira tartekoa gurean. Baina, garai batean, bestelako garaian ere jokatzeko ziren batel estropadak batean eta bestean.

Goian ikusi daitekeen argazkia 1964ko sanpedroetakoa da. Inazio Gastañazpi, Jexux Saizar *Luxarbe*, Joxe Luis Korta eta Bixente Korta dira txalupa osatzen dutenak.

Sanpedro eta sanikolasetan jokatzeko ziren orduan estropadak eta denak irabazi zituen

laukote horrek. Batela Txagatarrena da, duela ez asko Kontxako badian erakustaldi gisara jokatuak estropadan erabili zen bera. Kofradiak antolatzen zituen estropadak eta Jexux Mari Azkue eta Manuel Mari Uranga ziren buru garai hartan. Arraunlariak, berriz, arrantzaleak.

ARGAZKIA ETA INFOR.: JEXUX SAIZAR

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.



“Arkupe eta saltsa lotzeko joera aldatu nahi dugu”

Marian Uranga eta Ainhoa Fernandez

Arkupe Elkarteko presidente ohia eta gaur egungo presidentea

Euri asko egin du Orioko merkatarien elkarteak, Arkupe, sortu zenetik gaur arte. Herriko **denda txikien jarduna** sustatu eta kalea girotzeko asmoz sortua, talde funtzionamenduari dagozkion aldaketak egin berri dituzte, ideia berriei ateak ireki eta eztabaidei ixteko.

TESTUA: L.BERASALUZE ARGAZKIAK: KARKARA

17 urte beteko ditu abenduaren 2an Arkupe Elkarteak. 58 bazkiderekin hasi zen 1996an eta urteek aurrera egin ahala, kide ziren batzuk galduz eta berriak irabaziz, kopuru horri eustea lortu dute; 53 bazkide dira gaur egun.

5 presidente izan ditu elkarteak: Maria Luisa Esnal izan zen aurrenekoa, 1996an

hasita; Cristina Salsamendik hartu zion lekukoa 1999an; Argiñe izan zen presidente atzetik 2005a arte; 2013a arte izan da presidente Marian Uranga eta Ainhoa Fernandez da orain hil martxoaz geroztik.

Hiru jarduera mota biltzen ditu Arkupek: profesionalak –igeltseroak, aholkulariak...-, ostalariak –tabernak eta jate-txeak– eta zerbitzu-emaileak –arropa dendak, argi-gaiak, argazki dendak...-.

Urteetako eskarmentua alboan, elkar-

tearen zutabeak beste era batera antolatzeari ekin diote aurten: taldearen alde lan egiteko bazkide guztien konpromisoa lortu nahi dute horrela alde batetik; eta lanak guztien artean egitearen beharra azpimarratu nahi dute bestetik.

Sorreratik dabil Arkupen *jo eta fuego* Marian Uranga. Elkartean 11 urte daratzen Ainhoa Fernandezi eman berri dio lema, datozen bi urteetan berak gida dezan merkatarien ontzia.



Egin dezagun atzera. Nola gogoratzen dituzue aurreneko urte haiek?

Marian Uranga: inguruko herrietako joerari segituz, Orion ere merkataritzak elkarrekin bat sortu nahi zutela-eta, dendari-irritzia jasotzeko galdeketa bat egin zuten Maria Luisa Esnalek eta Cristina Salsamendik. Erantzuna oso ona izan zen, gustura eta lanerako gogoz zegoen jendea. Segituan hasi ginen diru-laguntzak eskatzen, kaleko animazioa eta formakuntza-ikastaroak antolatzen...

Orduan aberatsagoa zen gure herria denda motei erreparatuta: erloju-denda, izoztuen denda, umeentzako zapata-denda... Herritarrek ere gehiago jotzen zuten herriko dendetara.

Ainhoa Fernandez: dena den, sortu ere... denda asko ireki dira azken urteotan. Orion ez daude merkatarien jardunerako lokal huts asko.

Nola funtzionatzen zuen elkarrekin hartan?

M.U.: Jarduera motaren arabera elkarrekin ginen Azurza Enean, norberak zituenez kezka eta iritziak elkarbanatzeko.

Presidentea paperean bakarrik izaten zen presidentea; lanak eta erabakiak taldean egiten eta hartzen ziren.

Horrez gain, asko aritzen ginen herriko taldeekin elkarlanean.

A.F.: gerora elkarteko lanak gaiaren arabera banatzen ere hasi ginen: administratzaile jarduten zuten batzuek, aparkaleku-faltari edo animazioari buruzko gaietan beste batzuek...

Batzuk joan besteak etorri. Bazkide kopuruari nahiko fin eutsi diozue.

M.U.: Denda itxi eta elkarrekin utzi dute batzuek; ireki eta gurean sartu dira beste batzuek; elkarrekin martxarekin gustura ez eta joan denik ere izan da. Ostalaritzan izan da beherakadarik handiena.

A.F.: Ostalarien ustez, bestelako arazoak dituzte haiek. Haien eta gure jardunen artean badira ezberdintasunak, baina gaur egun guztiok ditugu antzerako arazoak. Konturatuta daude horretaz eta elkarrekin biltzen eta ekintzak antolatzen ere hasi dira, pintxo-txikiteoa konparazio batera. Halere, indar gehiago izango genuke denok norabide berean lan eginez gero. Arkupe hitza ahotan izateak atzera botatzen ditu batzuek eta hori da aldatu nahi duguna. Beste begi batzuekin ikus gaitzaten lortu nahi dugu.

Muntoko gorabeherak zer esan handia izan dezakete, agian, kontu horretan.

A.F.: Lan handia egin dugu eta ari gara egiten; eta erre egin gaitu Muntoko proiektuak; nekatu eta erre.

Bilerak ere oso gogorrak izaten dira Muntokoa bezalako gaiak esku artean ditugunean. Bazkide askok ez dituzte horrelako kontuak bere sentitzen -eta iza-

“Aberatsagoa zen lehen gure herria denda motei erreparatuta: erloju-denda, izoztuen denda, umeentzako zapata-denda... Herritarrek ere gehiago jotzen zuten herriko dendetara”
—Marian Uranga

“Arkupe hitza ahotan izateak atzera botatzen ditu batzuek eta hori da aldatu nahi duguna. Beste begi batzuekin ikus gaitzaten lortu nahi dugu.”
—Ainhoa Fernandez

“Aparkaleku faltaren arazoa ez dela hainbestekoa esaten dit jendeak, baina nire dendan, behinik behin, sarri-sarri entzuten ditut kezka eta Oriora etortzeari utziko dioten mehatxuak”
—Marian Uranga

“Eroskiren denda handia da gure kezka nagusia. Urbilera doanak harako bideari eutsiko dio; berdin Maxirekin. Hortaz, herrian erosten duen hori galduko dugu guk, parte batean. Ordainetan, zenbat denda itxiko dira Orion?”
—Ainhoa Fernandez

“Guk badugu zentro komertzialen aldean abantaila bat: konfiantza. Saltzeaz gain, zerbitzua ematen dugu guk; era askotara, gainera. Dena den, erosleak, orokorrean, ez du baloratzen hori”
—Ainhoa Fernandez

tez, denona da arazoa - eta ez dute bilertara etorri nahi izaten.

M.U.: 2005erako hasita geunden Muntokoa eta Muntoko behera eta oso luze doa. Kontraesanak ere ikusten ditut nik: aparkaleku faltaren arazoa ez dela hainbestekoa esaten dit jendeak, baina nire dendan, behinik behin, sarri-sarri entzuten ditut kezka eta Oriora etortzeari utziko dioten mehatxuak.

Ohitura aldaketak nabariak izan dira zuenean.

M.U.: Zalantzarik gabe. Herrikanpo-ra jende asko joaten da erosketak egitera. Sekulako mina egin dute zentro komertzial handiek.

Muntoko eremuan jarri nahi denari buruz zer duzue esateko?

A.F.: Azalera handiko denda hori ez da Orioren beharretatik etorri. Aurreko Udalak tokia egin zuen eta interesatuak bilatzeari ekin zion gero: Super Amara aurrena, BM... eta Eroskik onartu du azkenean. Alegia, premiarik ez dagoen lekuan sortu dute beharra. Eroskiren denda handi hori -1.630 metro koadro ditugorabehera - da gure kezka nagusia. Urbilera doanak harako bideari eutsiko dio; berdin Zarauzko Maxirekin. Hortaz, Orion bertan erosten duen hori galduko dugu guk, parte batean. Ordainetan, zenbat denda itxiko dira gurean?

Erosketa handiak han egingo dituzte jendeak eta tipula bakar bat falta duenean etorriko da herriko denda txikietara. Horren kontra ezin dugu ezertxo ere egin, bat ere ez.

Kontzientziario falta ere badago. Enpresa bat enplegu-erregulazio espedituetan sartzen denean normal normaltzat jotzen dugu hango langileek borroka egitea. Kalera ateratzen dira eta beren lanpostua defendatzen ari direla-eta, gure babesa ematen diegu. Guk ere gauza bera egiten dugu: gure lanpostua eta lanbidea defendatu. Baina jendeak ez du horrela ulertzen. Egoista modukotzat hartzen gaituzte.

M.U.: Horrez gain, herritar eta kontsumitzaile ere bagaren aldetik, herriari dalkion galeraren jakitun naiz; bizia kentzen zaiolako.

Guk badugu zentro komertzialen aldean abantaila bat: konfiantza. Saltzeaz gain, zerbitzua ematen dugu guk; era askotara, gainera. Dena den, erosleak, orokorrean, ez du baloratzen hori.

Horrez gainera, prezioari begiratuta, produktu asko eta asko merkeago ditugu guk haiek baino. Jendea oso oker dago horretan.

A.F.: Bestalde, ostalaritzak ere kaltea jasango duela ikusi behar du: tabernak eta kafetegiak ekarriko ditu albora Eroski handiak eta herriko gainerako bazterre-



takoen bezeroak erakarriko dituzte. Inguru hori da indartuko dena.

Eskerrak, gutxienez, Dendar-tean-en – Gipuzkoako merkatarien bilkuraren – eta Euskal dendak-en – Euskadiko merkatari, ostalaritza eta zerbitzu enpresen elkartearen konfederazioaren – laguntzari; legeez dakiten abokatuak eta abar behar izaten baitira.

Zertan ari zarete orain?

M.U.: Borrokan segitzen dugu eta denda hori ireki ez dadin saiaturako gara. Plan Partziala onartu dute, eta segidan, Eroskiri lizentzia ematea onartu behar da; arau guztiak behar ditu horretarako eta gure ustez ez ditu denak betetzen.

A.F.: Konpetentzia legala da eta ez gaude denda berriak irekitzearen kontra; baina denda guztiak baldintza beretan egotea nahi dugu.

Presidentea berritzearekin bat talde-arauak ere aldatu egin dituzue.

M.U.: Beti betikoak ibili izan gara hango eta hemengoak egiten. Inguruko herrietako jardunarekin konparatuta, gurean jende asko izaten bada ere batzar eta ikastaroetan, ez da txandakaterik egon. Herriarentzako aberasgarria da dendariak herritarrentzako gauzak antolatzeari, baina aberatsa da baldin eta ideia berriak badatoz. Kide guztiek ezagutu behar lukete elkartearen funtzionamendua.

Dena den, Zarauzko Komertziorako Laguntza Tekniko Kabineteak urteetan eman digun laguntza ere azpimarratu nahi nuke. Lan asko hartu ditu beregain bertako kide Jesus Sanzek.

A.F.: Horixe da orain bermatu nahi duguna, elkarteko kide guztiek hartzea parte bai bileretan eta baita jardueretan ere. Horretarako, sei lagunez osatutako zuzendaritza batzordea aldatuz joango gara, hiru kide berri urteko. Elkarte freskoa eta dinamikoa izan nahi dugu.

Arkupe eta saltsa sinonimo bezala ikusteko joera hori ere aldatu nahi dugu.

Zein erronka dituzue aurrerantzean?

A.F.: Muntoko kontuari ematen diogu erabateko lehentasuna. Horrez gain, urteroko ekintzak egingo ditugu: abuztu bukaeran stock azoka; Olentzeroren etorrera Gabonetan; Arkupe astea, urria aldera...

Azken batean, gure elkartetik sortutako ideiak garatzen ikustea pozgarria da. Txu-txu tren, Bixigu-eguna eta Olentzeroren etorrera, esaterako, Arkupetik ateratako ideiak izan dira.

Gure bezeroak saritzeko bidea aurkitu nahirik ere bagabiltza azken urteotan. Fidelitate-txartela egin nahi dugu Caja Ruralaren bitartez, baina herrian ez dauka bulegorik eta ezinbesteko baldintza da hori txartela egingo badugu.

ATZETIK AURRERA BEGIRATUZ

1 95 komertzio daude gaur egun Orion. Horietatik 53 hartzen ditu elkartearen Arkupetik. Merkatari elkartearen sorreratik daude horietako asko; 14 hain zuzen ere: Uraitz lurri-denda, Lourdes arrandegia, Ramiro argazkiak, Dorronsoro janari-denda, argi-gaiak, Lore burdindegia, Oditz oinetakoak, Lizaso dekorazioa, Ardatza arropa denda, Itziar kirolak, Orio's shop, Aliprox Uranga –Erosle lehen-, Oriogi, Uranga burdindegia, Gozategi fruta-denda –Ondo Erosi autozerbitzua, lehen- eta Iparragirre autozerbitzua.

Aztera begira jarrita, Arkuperen sorrerako denda askok itxi ditu atean gurean, 18k: Gubi, Axun janariak, Ibai Ondo supermerkatua, Alimentacion Orio, Ertza, Anton-Enea, Laiari izozkiak, Maria Pilar mertzeria, Sugar goxo denda, Uranga oinetakoak, Anarri kirolak, Master Sarasua, Daddy boutique, Miren mertzeria, Alonso zeramikak, Kuttun eta Pausoka.

Elkartearen babesik gabe egiten dute beren bidea beste merkatari eta ostalari askok, Arkupetik pasatako akizian ala ez.

Eta azken urteotan sortutako denda berri askori ere ireki dizkio atean Arkupetik: Berezi, Patxi Oliden, Kultur Atelier, Kutixi, Eki-Lorea, Dakota, Rosana, Izarra arropa denda, Mauka paper denda, Muxutruk, Lua, Kaioa...

PAZKO ASTEKO EGITARUA

I az izandako arrakasta ikusita, aurten ere herria girotzeko zenbait ekimen jarriko ditu martxan Arkupetik elkarteak Pazko Astea; apirilaren 2an eta 3an, hain zuzen ere. 3 puzgarri, jumping-a eta zezen mekanikoa izango dira Ikastola aurreko plazan, 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 18:30era. Eurria egiten badu, aldiz, Ikastolako pergolara eramango dituzte jolas guztiak.

Txartelak lortzeko bi modu daude: Arkupetik dendetan erosketak egitearen truke edo egunean bertan erostea, 50 zentimo ordainduta.

Tipi-tapa, tipi-tapa Korrika!

Korrika, AEKk antolatuta, Euskal herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu. Horrela definitzen du Korrika webgune ofizialak.

Izan ere, eta jakingo duzuen bezala, joan den martxoaren 14an eman zitzaion hasiera, Andoainen, 18. Korrikari Eman euskara elkarri lelopean. Igande honetan goizeko hamaikak aldera Baionara iristea espero da. Martxoak 23an, larunbatarekin, arratsaldeko hirurak inguruan helduko da. Ibilbide ofizialaren barruan ia 2.600 kilometro egingo dira. Herrietan antolatzen diren iniziatiba propioak ere kontuan hartu behar ditugu, milaka pertsonak hartzen baitute parte, bereziki haurrek. Horretaz gain, azken egun hauetan albistegietan ikusi ahal izango zenuten bezala, atzerrian dauden euskaldunek ere egin ohi diote

euren omenalditxo Korrikari, hainbat hiritan jende andana elkartzen baita euskara ahoan hartuta korrika egiteko.

1980tik Euskal Herria gurutzatzen dabilen ekimen honetan parte hartzeko aukera hainbatetan izan dut. 2011koan parte hartzea ezinezkoa izan bazitzaidan ere, gogoan dut orain dela lau urte nola institututik jende mordoxka atera ginen Zarauzko kaleetan barrena ibilbideari jarraitzeko, eta baita 2007an koadrilarekin afaria bere horretan utzi eta ia Getariaraino nola joan ginen ere.

Bizi ahal izan ditudan edizio guztietatik bat aipatzea gustatuko litzaidake, hain zuzen ere, 1997koa. Sei urte bete berriekin, herriko ikastetxeek antolatuta nire lehen Korrika bizi ahal

izan nuen. Eskolan margotutako petoa jantzi eta Bikamiotatik atera ginen, aurreraxeago Ikastolan geldialdia egin eta plazara iristeko. Gaur egun, oraindik ere hain ezaguna izaten jarraitzen duen Gozategiren Euskal Herria Korrika abestuz, plazan txokolatea hartu eta gelakooi argazkia atera ziguten. Ene, a zer nola-lako oroitzapenak.

Gutariko bakoitzak festa hau bere modura biziko du ziurrenik, baina guztiaren gainetik badago bertaratzen garen guztiok batzen gaituen arrazoi bat: euskararekiko maitasuna. Ez da festa soilik, euskara ikasten eta irakasten aritzen direnei zor diegun errekonozimendua baizik. Bakoitzak ahal duen neurrian lagun dezala, diru-laguntzaren bat emanez edo ibilbidean parte hartuz, ez baita gutxi. Garbi izan behar dugu euskararen alde euskal hiztunok egiten ez dugunik ez dugula kanpoko inorengandik espero behar. Garrantzitsua da, anima zaitetz eta hartu parte!



BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- ENPLAZAMENTOA AHOZKALARIETAN
- ENPLAZAMENTOA IRISIA
- ENPLAZAMENTOA JIRIBIRIA
- LAP-IRISIA AHOZKALARIETAN
- FURTOA AHOZKALARIETAN
- ALEAKI ATENA AHOZKALARIETAN

Jakiko Mendiak Etxepare
943 61 00 11

Berme 10 Aste
943 61 00 11
1.943 61 00 11

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

gizarte
kutxa

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 83 59 00

Gabon
TABERNA

plater kebabak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

Maider Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLOGIA ZENTROA

24 OHARREZ ZERBITZUA

IGLESIAS
SARRAILAGILEAK

www.IGLESIASARRAILAGILEAK.COM

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias.fernandez@iglesias.es
20810 ORIO

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[samera Arrantzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com

Lilatoiaz

Lilatoian atera naiz. Egia esango dizut: Kirolak ez nau gehiegi *engan-txatzen*. Egin eta gero bai, ondo sentitzen naiz, baina kosta egiten zait joatea. Korrika egitea ere ez zait gehiegi gustatzen, baina denbora gutxi kentzen dit eta egin eta gero sentsazioa erabatekoa da, bikaina. Berpiztu bezala egiten nau, alferkeria kentzen dit, aktibatu egiten nau.

Lilatoia festa bat da. Kolore guztietako emakumeak topa ditzakezu han: handiak eta txikiak, zabalak eta estuak, adinez helduak eta oso gazteak, tximista bezain azkarrak eta mantsoak... festa ikaragarria da. Nik ama naizela ospatu dut. Langilea naizela ospatu dut. Eta horrekin guztiarekin egunari ordu erdi kendu eta korrika egiteko gai naizela ospatu dut, helburu handirik gabe, festa giroan, erlojuari begiratu ere egin gabe. Ondoan ni bezala doan jendearekin hitzik egin gabe, lagun sentituz.

Gizonezkoek lilatoian eurak ere onartu beharko lireratekeela esan izan didate maiz. Bada-ki, badira emakumeen aldarrikapenarekin bat egiten duten gizonezkoak. Badira ama naizela, langilea naizela eta kirola egiten du-

dala nirekin batera ospatuko luketen mutilak. Ezin dute. Ulertzen dut kexa, nireganatzen dut horrek sor dezakeen amorrua.

Nik hamalau-hamabost urte nituenan surfa probatuko nukeen gustura. Baina lotsa ematen zidan neoprenoa jantzi eta ur izkinara taula bat besapean nuela nire burua uretara joaten irudikatzeak berak ere. Lotsa hark kris-toren amorrazioa ematen dit.

Zenbat gauza geratu ote zaizkit probatu gabe lotsagatik? Eta egia da, ni ez naiz bereziki lotsatia. Baina galtza motzetan edozer egin behar banuen nire ipurdi handia estaltzeko jertsea jarriko nuen gerrian. Korrika hasi naizenean ere lotsa presente izan dut. Minutu batzuk oinez eta beste batzuk korrika egiten nituen. Jendearekin gurutzatzen nintzenean ez nintzen inoiz pasatuko korrikatik oinez ibiltzera jendea ondo gurutzatu arte.

Gizon eta emakumeek parte hartzen duten lehiaketetan broma gutxi dago. Ez dituz gehiegi probatu -ezta probatzeko asmorik ere-, baina halaxe da. Denak ikusi nituen erlojuari begira eta nire erritmoa -karakolaren antzekoa askorentzat- ez da existitzen. Igual pilak jarri beharko nituzke batzuen ustez, baina joe! Nik kirola egin nahi dut, gozatu, ondo pasatu, barre egin, aitzakia horrekin lagunekin geratu, presiorik ez sentitu... eta lilatoiak naizen bezala onartzen nau, nire karakol erritmoarekin, presiorik gabe, erlojurik gabe...

Gauzak asko aldatzen ari direla iruditzen zait. Gaur egun hamalau-hamabost urteko neskak surfa probatzen ikusten ditut: seguru aski batzuk lotsarik gabe eta beste batzuk lotsari aurre egiten -Oole!!!-. Galtza-motzetan edozer egin behar denean asko gerrian jertserik gabe ikusten ditut -noski, askotan oztopoa baino ez da-eta!-.

Gauzak nire ama gaztea zenetik gurera asko aldatu dira. Eta guretik oraingoenera ere asko aldatu dira. Baina, zer nahi duzu esatea... nik oraindik beharrezko ikusten dut Lilatoia bezalako karrera bat egotea, igual etorkizunean ez, baina oraindik bai.

Igual pilak jarri beharko nituzke batzuen ustez, baina joe! Nik kirola egin nahi dut, gozatu, ondo pasatu, barre egin, aitzakia horrekin lagunekin geratu, presiorik ez sentitu... eta lilatoiak naizen bezala onartzen nau, nire karakol erritmoarekin, presiorik gabe, erlojurik gabe...

Nire honetan
Rikardo Uzkudun

Inon ez eta denean

Hara, argi eta garbi esango dizuet, bada pertsona klase bat -joera klase bat finago esaten hasiko banintza- jasanezina egiten zaidana, *malaletxean* jartzen naiz holakoak nire aurrean jo eta fuego ikusten ditudanean, zer egingo zaio bada!

Gure herrian, nik dakidala, ez dira asko horrela jarduten direnak. Pare bat, ordea, maisu dira horretan, errege; eta nik gutxitan ikusten baditut ere, ezin ditut nire burutik atera, nire *fantasma partikularrak* bihurtu dira, agidanez.

Hala eta guztiz ere, ez nau horrek hainbeste kezkatzen -zer ginateke gure *fantasmatorik* gabe?-. Bai, ordea, nire lagun batzuk joera hori hartzen ikusteak, zertaz ari naizen? Beno, gaizki esaka hasita norengatik ari naizen?

Norberak ezertxo egin ez eta besteengatik jarduten direnengatik ari naiz; edo xua-beago nahi baduzue, berak saiatu ere ez eta besteek gauzak nola egin behar dituzten esaten aritzen direnengatik. Eta ez naiz atsoengatik ari, e? Kanpotik oso merke ateratzen da jardutea; barrutik gauzak aldatzea, ordea, garestixeago.

Bai, zer nahi duzue esatea... ezin ditut jasan, zer egingo zaio ba!

Denean eta inon ez egotea ez da ona izango, baina inon ez eta denean egote hori!...





karkara eta



eskutik hartuta datoz

**Apiriletik aurrera, laguntzaileen artean
Arkupe elkarteko dendetan gastatzeko
60€ko bonoak zozketatuko ditu KARKARAK**

Ille apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MIRANDA
tarima, ate, leiho, eskalera...
behar diren arretz lanak
egingo dizkizugu
Urdaneta bidea, 1 -669 42 32 70- ZARAUTZ

ODITZ
Hona zahaleko sirtetarak
ogor eta emakumeentzat
tel. 943 83 00 89

PERTSIANAK
Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...
Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

URAITZ
burindegia
jantzi sagarrak
Enlata, 3 Tfwn: 943 83 18 97

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK
Sarlago azpia - 18 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 834
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
70819 ORIO - GIPUZKOA
Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

URANGA
burindegia
Opari, menaje eta erremintak
fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

tel/fax: 943 89 00 69
Bihara kalea, 4 - 20.800 ZARAUTZ
URBIDE
ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA
Prestazioak: kalitatezkoak

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Zaragueta Herri Eskola (orio)
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezuntza.net

ASADOR XIXARIO
Eusko Gudari Kalea, 2
Tel. 943 830019 - ORIO

XABIER URRETABIZKAIA
- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezain automatikoak
60 urte zerbitzua ematen
943 83 17 74
Arrantale, 31 - 20810 ORIO

sinergia investigacion fisioterapia
FISIOTERAPIA: Garkoitz Aristegi eta Natalia Wierszen
NUTRIZIONISTA: Gorbabe Aizpuru
ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

Gaia emanda Hugo Chavezen heriotza

Martxoaren 5ean hil zen Hugo Chavez Venezuelako presidentea eta albisteak nazioarteko egunkarietako azal guztiak bete ditu. Gurean ere egin diogu tarte gaia.

Hugo Chavez diktadorea hil da

Hasa den martxoaren 5ean Hugo Chavez diktadore venezuelarra zendu zen. Hila bete batzuez Venezuelan bizi izan nintzen iaz eta bertatik bertara ezagutu nuen herrialdea. Komunikabideetan etengabe aritu dira Chavez buruz, askok demonizatu egin du, eta horren harira zenbait kontzeptu argitu nahi nituzke.

Venezuelako estatu-burua presidentea da eta hauteskunde bitartez aukeratu zen da. Chavez presidentea izan da 1999tik bere heriotza arte, epe horretan izan diren lau hauteskunde presidentzialak irabazi ostean. Espainiar estatuan, aldiz, estatu-burua Juan Carlos erregea da, Francisco Francok hala aukeratu.

Chavezen agintaldian 14 erreferendum egin dira. Denak lotesleak; hau da, hauteskontzietan erabakitakoa errespetatzera behartuta zegoen Venezuelako gobernuak. Ni 1986an jaio nintzenetik, bi erreferendum egin dira espainiar estatuan. Batetik, 1986an bertan NATO sartu ala ez erabakitzeko eta bestetik 2005ean Europar Konstituzioaren inguruan. Bi erreferendum horiek ez ziren lotesleak, kontsulta hutsak ziren. Beraz, espainiar gobernuak ez zegoen derrigor-tuta herritarrek bozkatutakoa errespetatzera, beto eskubide moduko bat zuen emaitza gustukoa ez izanez gero nahi zena egiteko.

2002an Chavezen aurka egindako estatu kolpearen ondoren ezinegon handia sortu zen venezuelarren artean. Oposizioak firma bilketa erraldoia egin

zuen presidentea kargutik kentzeko. 1999an Chavezek berak martxan jarritako konstituzioak horrela agintzen zenez, erreferendum bat antolatu zuen gobernuak. Erreferendumean Chavez kargutik kendu ala ez bozkatu zen eta Chavezek irabazi zuen.

Barcenasen gutun-azalei buruzko eskandalua argitaratu zenean milioi bat firmatik gora bildu ziren Rajoyen dimisioa eskatzeko ordu gutxitan. Inork badaki noiz jarriko duen kargua herritarren erabakiaren esku?

Jimmy Carter AEBtako presidentea Venezuelako bozkatze-sistema munduko onena dela baieztatu zuen. Carteren fundazioak munduan zehar hauteskunde prozesu ezberdinak ikuskatzen ditu eta erreferente bat da. Gurean, illegalizazioak ez aipatzearen, Iniziatiba

Jimmy Carter AEBtako presidentea Venezuelako bozkatze sistema munduko onena dela baieztatu zuen. Carter-en fundazioak munduan zehar hauteskunde prozesu ezberdinak ikuskatzen ditu eta erreferente bat da

Internazionalistak Espainiar estatuan 2009ko Europar Legebiltzarreko hauteskundeetarako bozketan izandako irregulartasunak ikertzeko daude oraindik.

Venezuelan botere ekonomikoa Chavezen aurka agertu da etengabe. Ondorioz, herrialdeko komunikabide talde handienek ahal duten guztia egin dute Chavez kargutik kentzeko. Tebistan, irratan, egunkarietan... Chavezen aurkako mezuak helarazten dira etengabe eta eskrupulurik gabe, horrek sortzen dituen ondorioekin -2002an Chavezen aurka egindako estatu-kolpea komunikabide talde handiek bultzatu zuten-. Hemen, berriz, denok ezagutzen ditugu Egin, Egin Irratia, Euskaldunon Egunkaria, Ardi Beltza eta abarrekin gertatutakoak.

2002an Venezuelan izandako estatu kolpean partaidetza zuzena izan zuen Henrique Capriles Radonski politikariak. Amnistiaturik izan zen eta 2012an oposizioaren presidentea gaia izan zen. Arnaldo Otegi, aldiz, 2005eko su-eten garaian kartzelaturik izan zen. 2008an kartzelatik irten zen eta 2009an berriz atxilotu zuten bakearen alde lan egiteagatik. Oraindik kartzelan jarraitzen du.

Dena den, inork ez dizue argituko oso ondo zergatik, baina gogoratu Hugo Chavez diktadore bat dela eta gu munduko demokrazia aurreratuenetako batean bizi garela.

Shanti Arrieta Manterola

Venezuelan bizi izandako oriotarra

tailer mekanikoa

AUTO-LAN
C. B.



urratira joan gabe
talde berria
zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO 943 83 00 34



kutixi
kafetegia
GOSARI GORDAK

Arizaga 5, 20810 Orrio
Tel: 943 13 15 17

KOLON TXIKI
adarkagis
jatearen



Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44



Txapela buruan, pozik abestu zuen bukaerako agurra Ibai Esoainek. KARKARA

Bertsoa eta korrika eskutik helduta

Kritika Orioko 3. bertsolari txapelketa

Orioko 3. taldekako bertsolari txapelketan lau hirukotek hartu zuten parte, bi finalurreko eta finalak jokatuz.

Lehenbizikoa eguerdian izan zen Kolon Txikin, eta jende pixka bat baldin bazen ere, saioa hotz antzean hasi zen bertsolarien urduritasunak eraginda. Rosi Lazkanok, Imanol Esoainek eta Rikardo Uzkudunek agur esan behar

zioten txapelketari, eta Egoitz Eizagirrek, Iker Gurrutxagak eta Aitor Arregik aurrera egitea lortu zuten, bota zituzten bertso ederrei esker. Saioa borobiltzeko Zigor Esoain eta Ibon Berasaluze ausartu ziren, gitarra eta guzti, prestatutako kantu batekin giroa alaitzera; baita lortu ere!

Arratsaldekoan, Iñaki Gurrutxagaren, Jon Agirresaroberen eta Antxon Mantzisdorren aurka aritu ziren Ibai Esoain, Mikel Iruretagoiena eta Igor Salsamendi. Errusta lepo beteta zegoen; adi eta bertso gosez. Bertso onak asko entzun ziren, bestela galdetu izan zirenei! Saio ho-

rretan Mikelek eta Igorrek finalera sailkatzea lortu zuten, Ibai gidari zutela.

Finala, Kalakarin izan zen, afalostean. Giro paregabea egon zen saio osoan, eta bost epaileek beren erabakia hartu artean, Mainer Sukiak, Laida Iturraldek eta Ainhoa Urkizuk mikroa hartu eta bertso musikatu batzuk abestu zituzten, Kalakariko giroa lehertu zuten arte. Bukaera arte oso bertso saio parekatua joan bazen ere, bigarren zarrarian, Mikelek, Igorrek eta Ibaik lortu zuten txapelek itzal egitea.

[XABIER IRIBAR]

Ikasleak idazle
Eider Arruti

Errepideen seinalizazioa

Guztiok dakigunez, asteburuetan, Orion, plazako errepidea itxi egiten dute. Izan ere, jai egunetan jendea txikiteoan egoten da plaza inguruan, eta arriskutsua izango litzateke denbora guztian auto edo motoak pasatzen egotea. Lasaiago ibiltzen gara guztiok autorik gabe. Errepidetik lasai-lasai ibiltzen.



Baina arazoa da, Orioko guztiak edo gehienek badakigula bai, baina kanpotarrek? Kanpotik datorren jendeak ez

daki. Seinalizazioek ere ez dute laguntzen, ez baitaude jarrita. Eta ez dakite nondik joan behar duten.

Nire ustez, eta jende askok komentatu didanaren arabera, seinaleak garbi jarri beharko litzuzkete. Jendeak ikus dezan nondik joan behar duen... Eta inor nahastu ez dadin.

Jai egunetan jendea txikiteoan egoten da plaza inguruan, eta arriskutsua izango litzateke denbora guztian kotxe edo motoak pasatzen egotea

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: -Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel.: 943 83 00 05/
943 13 25 32

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2. 2. ezkerria ORIO

Tel.: 616 581 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO | Grupo CATALANA OCCIDENTE

» HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Jendeak Orioko gizonzkoen maila eta historia ikusita, espero du neskok ere horrela ibiltzea, baina zaila da, behetik, zerotik hasi behar baitugu mutilak iritsi direnera iristeko.”

Itziar Olasagasti, Harian (ETB1), 2013-III-10.

“Beti esan izan dut emakumeak kontra eta gizonak alde izan ditudala etxean. Emakumeak plazetara joaten dira, animatzen dute, baina utziko banu lasaia go ibiliko lirateke.”

Idoia Etxeberria, harri-jasotzailea, Harian (ETB1), 2013-III-10.

» OSPAKIZUNA



Rosa Arrutik 3.000 euro Albizun

Espainiar estatuan, Activa kateko 350 elektrotresna denda inguru daude. Gabonetan erosketak egin zituztenen arteko zozketan Orioko Albizu dendako Rosa Arruti bezeroa izan da 3.000 euroko sariaren irabazlea. Txekoa pozez jaso zuen Rosa Arrutik Jorge Escobedo Activako zuzendariaren eta Ainhoa Albizu Orioko dendariaren eskutik. Dendakoak ere pozik daude saria beren saltokian tokatu delako.

» ZORIONAK!

Hondartza garbitzaileei

Orioko Surf Taldearen eta Herrio natur taldearen deia erantzunez, berrogei bat herritarrek hartu dute parte aurten ere hondartza garbiketean. Herritarron utzikeria arrastoak nabarmenak izan dira: besteak beste, zigarrokinak, higie pertsonalerako materiala, latak, arrantzarako objektuak, jostailuak... bildu baitituzte Antillako hondartzatik eta inguruko arroketatik ordu pare batez lanean egon ondoren.

Ez da hondartza garbiketean, egun batez bada ere, lanean aritzen direnak zoriontzen ditugun lehen aldia, baina ingurumena zaintzen eta beste herritar zein ingurukoek sortzen duten zaborra garbitzen dutenek merezi dute.



**Jaunartzeko
erreportajeak
60€-tik hasita**

RAMIRO
argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantza kalea, 65
20810 Orrio (Gipuzkoa)

Faroeko bakailaoa
daukagu

**ITSAS
MENDI**

gutizlak

Euzko Gudari, 5 Tel. 943 24 87 74 Orrio

ITZALA

kartela jakatzeko
arropak

tel. 943 83 12 59



Joxe Manuel Ibar *Urtain* eta Mariano Etxebarria elkarren arteko borrokaldia eta gero. CESAR ESTORNES

Urtain - Weiland Aian

Oroimenaren kutxa

Urtain-Weiland, *el combate del siglo*. Era horretako titularrak zekartzaten 1970eko apirilaren 3ko hemengo egunkari guztiek. Gau hartan, euskal herri gehienetan, Gipuzkoako guztietan bai behintzat, jendea telebistari begira zegoen, artean oso ugaria ez zen tramankuluaurrean jarrita. Urtainek, euskaldunen idolo berriak, Europako txapelketari ekingo zion Madrilen. Paulino Uzkudun errexildarraren garaitik boxeo-borrokaldi batek ez zuen euskaldunon artean halako ikusminik sortu. Aian jende guztia borrokaldia hasi zain zegoen, gogoan

gauza bakarra zutela: boxeolari egindako harri jasotzaileak, bere 28. konbatean, 105 kiloko alemana hankaz gora bota eta buruan Europako txapela janztea, gero mundukoaren bila abiatzeko. Etxean afaldu ondoren, gizonezko gehienak herriko tabernetan zeuden kafea hartuta, kopa eskuan, batzuk purua ahoan.

Apirila zen, eguraldia ez zen oso ona. Eguna petral antzean joan zen. Zerua goibel ageri zen. Halako batean, boxeo hastear zela, zeruan trumoiak jo zuen. Laster zen zaparrada ere, tximistek lagunduta. Eta, hara, halako batean, argia joan eta denak ilunpetan geratu ziren. Hura xe bai izorratzea! Argirik ez, telebistarik ez, eta Urtainen konbaterik ere ez.

Batek berehala izan zuen ideia: *Blasen panaderian grupo elektrikoa zegok, hura martxan jarrita, izango diagu argindarra; han ikusiko diagu boxeo*. Korrika, arrapaladan jo zuten denek Blasenera. Ogi usainean, hantxe ikusi zuten gau hartako boxeo. Urtainek lau aldiz bota zuen lurrera Weiland. Sekula ez zen izan Blasen okindegian horrenbeste oihu, inoiz ez horrelako emoziorik, Urtainekalemana zazpigarren asaltoan hankaz gora bota, eta Patxi Alkorkak Arroako mutilari buruan txapela jantzi zionean bezalakorik. Blasen biharamuneko ogiak ere gustu hobea zuen.

[IÑAKI TURAIN]

» JAIOTAKOAK

■ Ez da jaiotakorik egon.

» EZKONDUTAKOAK

■ Gregorio Luis Lozano Machon eta Maria Anastasia Lazkano Urzainki, Orion, martxoaren 9an.


» HILDAKOAK

■ Esteban Eizagirre Azpiroz, Orion, martxoaren 12an. 86 urte.

■ Miren Fresnedo Arrillaga, Orion, martxoaren 8an. 91 urte.

■ Juan Inazio Alkain Alkain, Aian, martxoaren 6an. 80 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



LURDES
KARKARDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

LOBETXU JATEXEN

Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 4b
Tel: 943 83 07 84 Fax: 943 84 87 10

943 572 870

KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...



KARKARA

“Bizimodua hobetzen hasteko ezinbestekoa dut lotarako lekua”

Pedro Cuesta

Etixerik gabekoa

Eguna joan eta eguna etorri, Kutxa aurrean ematen dituzte orduak Pedro Cuestak eta Punto txakurrak. Etixerik ez eta bizimodu gogorra dauka gizonak. Ia 2 urte daramatza Orion, gure artean, kaleko bizitzari aurre eginez, estalpea lortzeko saiakeratan.

L.BERASALUZE

Gaztea zela utzi zuen atzean bere sorterrria, Caceresko Torre de Don Miguel, Pedro Cuestak. Euskal Herrirako bidea hartu zuen orduan eta duela bi urte, Oriora etorri zen bizimodu bila.

Zergatik utzi zenuen jaioterria?

Mendilerro bateko haranean dago 600 biztanle dituen Torre de Don Miguel herria. Landako bizimodua da han nagusi; txikitan hasita, familiari lagundu behar izaten zaio nekazarilanetan. Aspertu egin ninduen bizimodu hark eta zerbait hobearen bila jo nuen.

Euskaldun asko izaten da Extremaduran oporretan, eta horrela izan nuen Gipuzkoaren berri. Haiak aipatutako bizimoduarekin, jendearekin eta paisaiarekin txoratuta, probatzea erabaki nuen.

Nora jo zenuen hasieran?

Donostiara etorri nintzen aurrena, hiriburua delako eta itsasoa duelako. Lana aurkitu eta 6 urte egin nituen bertan.

Bihotz kontuak tarteko, Eibarrera joan nintzen gero, emakume frantses baten atzetik. Laudion egiten nuen lan orduan eta atzera eta aurrera ibiltzen nintzen egunero kotxearekin, goizean goiz atera eta iluntzean etxera bueltatu

arte. Haurdun zegoen bikotekidea eta nire lanak emandakoarekin bizi behar genuen biok; eta bidean zetorrenak.

Eibarren bertan lana aurkitu eta gutxira, ordea, banandu egin ginen bikotekidea eta biok. Hari utzi behar izan nizekion etxea eta autoa, alaba berarekin dagoelako. Kale gorrian geratu nintzen ni.

“Oriotarrekin hizketan aritzen naiz gaur egun eta herritar moduan hartzen eta pertsona gisa tratatzen naute. Askok da hori”

“Bokadilo bat, baso bat sagardo eta tabako pakete bat erosteko adina ateratzen dut egunean. Justukoa.”

Eta herrizaldatzera erabaki zenuen.

Eibartarrek asko kritikatzten ninduten eta handik alde egitea erabaki nuen. Itsasoari segika, Deban egin nuen lehen geldialdia. Bihotzak, ordea, hura ez zela nire herria esaten zidan eta Oriora etorri nintzen. Oso egokia iruditzen zait, mendia eta itsasoa, biak, dituelako.

Nola hartu zintugun hemen?

Zimitorioan egin nuen lo lehen gau hartan. Egunez, herritarrek begiratzen ninduten, bai, baina berria den edonori bezalaxe.

Pertsona atseginak aurkitu ditut hemen. Esate baterako, egun onak ematen zizkidan edonork hasiera hasieratik –leku askotan ez zaituzte begiratu ere egiten-. Egunak pasaz joan dira eta konaturatzerako bi urte egin ditut hemen. Oriotarrekin hizketan aritzen naiz eta herritar moduan hartzen eta pertsona gisa tratatzen naute. Askok da hori.

Zer behar duzu bizimodua hobetzen hasteko?

Bokadilo bat, baso bat sagardo eta tabako pakete bat erosteko adina ateratzen dut egunean. Justukoa. Batzuetan jatekoa ekartzen didate batzuek, etxetik edota dendatik. Eskerrak denei.

Lo egiteko lekua eta lana behar ditut bizimodua hobetzeko: lotarako tokia, etxabe bat edo, erroldatzeko –nahikoa dut hor lo egiten dudala dioen agiriren bat, gero egia ez bada ere-. Horrela, besteak beste, diru-laguntzetarako aukera eta nire motxila eta txakurra utzi, eta lan bila hasteko modua izango nituzke.

Kofradian urte bete egin ondoren, egun batetik bestera itxi egin zidaten eta frontoi atzeko aterpean ematen dut gaua orain.

Eta lana ere behar dut, jakina, diru-iturri gisa, beharrezko ditudanak eskuratu ahal izateko aurrezten hasteko.



Korrika Orion larunbatean

Eman euskara elkari lelopean abiatu zen Andoainen aurtengo Korrika, euskararen aldeko lasterketa erraldoia. Baionara bidean herriz herri ibili ondoren, Oriora bihar, martxoaren 23an iritsiko da. Xuai gainean 14:46an pasatuko da eta hortik aurrera lekukoa eskutik eskura aldatuz toki hauetan egingo dituzte trukeak: Harrobian, Ubegungo bidegurutzean, udaletxean, Herriko Plazan, gaztetxean, Oliden jatetxean, Botalekun, Saikolan eta Aginagan.

Orio

Ikastaroak

■ Martxoaren 23an, 10:15etik 13:30era. *Gorputzarekin komunikazioa: gorputza mugimenduan* tailerra helduentzat. 25 euro. Martxoaren 24an, 11:30etik 13:00etara. *Mugimendua, kontaktua eta erlaxazioa* familiar tailerra. Helduek 15 euro, umeek 5 euro. Maria Maestra haurreskolan. Informazioa eta izen-ematea: nereumendi@gmail.com edo 628 85 92 82.

Informatika

■ Martxoaren 27an. *Impres* programa -diapositibak eta aurkezpenak sortzeko-. 09:00-11:00, KZgunean.
 ■ Martxoaren 27an. *Google maps* ikastaroa. Euskaraz. 11:00-13:00, KZgunean.

- Apirilaren 2an. *Softonic* -deskarga programak-. 11:00-13:00, KZgunean.
- Apirilaren 3an. *Gmail* -Google-ko posta elektronikoa- ikastaroa. 09:00-11:00, KZgunean.
- Apirilaren 4an eta 5ean. *Metaposta*. Euskaraz. 11:00-13:00, KZgunean.
- Apirilaren 8tik 19ra *Internet* oinarrizko ikastaroa. Euskaraz. 16:00-18:00, KZgunean.
- Apirilaren 9an. *Blogger*. 18:00-20:00, KZgunean.
- Apirilaren 11n. *Nvibes* -mahaigain birtuala. 18:00-20:00, KZgunean.
- Martxoaren 26an, 09:00-11:00 eta apirilaren 10ean 18:00-20:00. IT txartela lortzeko azterketa. KZgunean.

Traste zaharrak

■ Martxoaren 27an eta apirilaren 10ean. Traste zaharren

bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Atera aurretik udaletxera deitu behar da zer aterako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Bilera

■ Martxoaren 28an. Orio-Arantzazu ibilaldia prestatzeko bilera. 20:00etan, Balea elkartean.

Kultur Etxea

■ Aste Santua dela-eta martxoaren 25etik apirilaren 5era Kultur Etxea eta liburutegia arratsaldez itxita egongo dira. 09:00etatik 13:00etara zabalik. Martxoaren 18tik apirilaren 2ra egun osoz itxita.

Bingoa

■ Apirilaren 10ean. Zaharren Babeslekuak antolatutako bingo saioa. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Hitzaldia

■ Apirilaren 10ean. Berdintasunari buruzko hitzaldia. 18:30ean, Kultur Etxean.

Musika

■ Apirilaren 11n. Entsegu irekia: Winchester 73 Iruñeko rock taldea. Surf, blues eta country musika ukituekin. 19:00etan, Kultur Etxean.

Aia

Silo-bolak

■ Apirilaren 9an. Silo-bolen bilketa. Informazioa: Urkome (943816500) edo Igor (660049751).

Podologoia

■ Martxoaren 30ean. Podologoaren kontsulta. Sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko: 943 1311 44.

Erromeriak

■ Martxoaren 24an, Miren, Agurtzane eta Oier trikitilariekin erromeria. 31n. Bide batez taldearekin. Apirilaren 7an, Laja eta Mikelekin. 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aris-terrazu plazan.

Hamar urte betetzera doa BERRIA

Lan handia egin dugu
elkarrekin. Errealitate
sendoa da euskarazko
egunkaria. Baina segitu
beharra dago.
Etengabeko berrikuntzan
ari gara, etorkizunari
begira. Kalitatezko
informazioa behar
dugulako, euskarri
guztietan, euskaraz.

Horretarako, komunitate
indartsu eta kontzientea
behar dugu ondoan,
bere-berea duten
BERRIA proiektua
sostengatuko duten
lagunen parte hartzea
eta ekarpenak.

Zure ziztada behar dugu

Hamarnaka kontatzen
jarraitzeko

izan zaitez **berrialaguna**

Izan zaitez zu ere BERRIA,
aukeratu zuk modua:

- berrialaguna:**
urtero BERRIA proiektuari ekarpen
ekonomikoa egiten dion laguna (sarean
irakurtzen duelako, proiektua
sostengatu nahi duelako...)
- berrialagun harpideduna:**
urteko kuota baten truke BERRIaren
papereko edizioa edo PDF edizioa
jasotzen duen laguna.
- berrialagun iragarlea:**
BERRIAn urteko publizitate plana
egiten duen iragarlea.



berrialaguna izan nahi baduzu:

www.berria.info

Posta elektronikoz: laguna@berria.info

Telefonoz: (00 34) 943-30 43 45

berria^{info}

hamarnaka kontatzekoak gara